EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO

EUSKO LEGEBILTZARRA
PARLAMENTO VASCO
SARRERA - ENTRADA
2017 MAI. MAY. 11
Nº 4119 ZK.
ERREGISTRO OROKORRA/REGISTRO GENERAL

## EUSKO LEGEBILTZARRAREN ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, EUSKADIKO HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN EGUNEAN

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialak bere eguna ospatuko du bihar, maiatzak 12, Eusko Legebiltzarrak Euskadiren Hirugarren Sektore Sozialaren Legea onartu eta urtebetera, hain zuzen ere. Eusko Legebiltzarrak efemeride hau aprobetxatu nahi du Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko sare eta erakundeak aitortzeko eta gizarte bidezko, solidario, kohesionatu, parte-hartzaile eta demokratikoago baten alde egiten duten ekarpena goratzeko.

Gizartean bertan eta haren zerbitzura sortutako erakundeek, batik bat doakotasunean eta borondatezko ekintzan oinarrituta lan egiten duten pertsonez osatutakoek, interes orokorra defendatzen dute beste ezeren gainetik.

Elkartasun antolatua eta jendartearen parte-hartzea bideratzen dute sare eta erakundeek eta, hala, problematika zehatz batek eragindako pertsona, familia, talde edo komunitateen eskutik, berehalako beharrizanei erantzuna ematen diete, pertsona ahul eta babesgabeenen gizarteratzea sustatuz eta horien eskubideak defendatuz.

Hirugarren Sektore Sozialak herritarren beharrizan askori erantzun eta erantzuten die, sistema publikoak

## DECLARACION INSTITUCIONAL DEL PARLAMENTO VASCO CON MOTIVO DEL DIA DEL TERCER SECTOR SOCIAL DE EUSKADI

El Tercer Sector Social de Euskadi celebra su día el 12 de mayo coincidiendo con la aprobación por este Parlamento de la Ley del Tercer Sector Social de Euskadi hace un año. El Parlamento Vasco quiere aprovechar esta efeméride para reconocer el aporte de las redes y entidades del Tercer Sector Social de Euskadi a la construcción de una sociedad más justa, solidaria, cohesionada, participativa y democrática.

Organizaciones surgidas de la propia sociedad, a la que prestan servicio, y conformadas en su mayoría por personas que trabajan desde la gratuidad, desde la acción voluntaria, para defender el interés general por encima de otros intereses.

Redes y entidades que canalizan la solidaridad organizada y la participación de la sociedad, a menudo de las propias personas, familias, grupos o comunidades afectadas por alguna problemática concreta, combinando la respuesta a las necesidades inmediatas, con la promoción de la inclusión social y la defensa de los derechos de las personas más frágiles y vulnerables.

El Tercer Sector Social ha venido respondiendo y responde a muchas necesidades de la ciudadanía, antes

urritasun, bazterkeria, babesgabetasun edo menpekotasun egoeran dauden pertsona eta kolektiboei inolako erantzunik emateko asmorik izan baino lehen ere. Hala, ekarpen historikoa egiten zaio egungo gizarte, gizarteratze eta enplegu zerbitzuen euskal sistemen konfigurazioari.

Oinarri soziala duten hiru mila erakunde baino gehiagok jarduten dute lan horretan, boluntarioek (127.000) eta, batzuetan, ordaindutako langileek (36.000) osatuta. Horiek guztiek, beharrizan egoerei aurre egiteko asmoz, uztartu egiten dituzte ekintza eraldatzailea eta instituzioekiko lankidetza, betiere gaitasun kritikoan oinarrituta eta proposamen alternatiboez baliatuta.

Hirugarren Sektore Soziala, hortaz, aktibo garrantzitsua da, euskal gizarteak ukatu ezineko ekarpen bereizgarria egiten duena. Gizarteak gero eta egoera konplexu eta anitzagoei egin behar die aurre; eta gizarte zibil antolatu dinamiko, sendo eta parte-hartzaile baten ekarpen eta sostengua behar du.

Hirugarren Sektore Sozialaren rolak, hortaz, gako izan behar du politika publikoen diseinu, garapen eta exekuzioan, elkartasun eta elkarrekiko laguntzan oinarrituta eta, betiere, honako alderdi hauek oso kontuan izanda: parte-hartzea, kohesio soziala, gobernantza, gizarte politiken sustapena, arlo honetako erantzukizun publikoko sistemen eraikuntza eta finkatzea, zerbitzuen hornikuntza eta pertsonaren eskubideen aldarrikapen, defentsa zein sustapena, baita horien

incluso, de que el sistema público contemplara algún tipo de respuesta a personas y colectivos en situación de discapacidad, exclusión, desprotección o dependencia, realizando una contribución histórica a la configuración de los actuales sistemas vascos de servicios sociales, de inclusión y empleo, entre otros.

Más de tres mil organizaciones con una base social amplia e integrada por personas voluntarias (127.000) y, a veces también por personal remunerado (36.000), que combinan la respuesta a las necesidades con la acción transformadora y, la colaboración con las instituciones, con la capacidad crítica y de propuesta de alternativas.

El Tercer Sector Social constituye un activo, que realiza una contribución diferencial, al que la sociedad vasca no puede renunciar. Nuestra sociedad tiene que hacer frente a problemáticas cada vez más complejas y diversas. Y necesita del aporte y soporte de una sociedad civil organizada dinámica, fuerte y participativa.

El papel del Tercer Sector Social es y debe ser clave en el diseño, desarrollo y ejecución de políticas públicas en términos de solidaridad y ayuda mutua, participación, cohesión social, gobernanza, impulso de las políticas sociales, construcción y consolidación de los sistemas de responsabilidad pública en este ámbito, provisión de servicios y, reivindicación, defensa y promoción de los derechos de las personas y de su ejercicio efectivo.

egikaritze efektiboa ere.

Hori guztia kontuan hartuta:

1. Eusko Legebiltzarrak premiatu egin ditu Eusko Jaurlaritza eta foru zein toki administrazioak elkarrizketa-bideak aktibatu eta finkatu ditzaten, eta Hirugarren Sektore Sozialarekiko beharrezko lankidetza abian jar dezaten Elkarrizketa Zibilaren esparruan.

2. Eusko Legebiltzarrak premiatu egin ditu Eusko Jaurlaritza eta foru zein toki administrazioak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialaren sustapena eta sendotzen jarrai dezaten, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko 6/2016 Legea betez, Euskadiko gizarte-sarea, parte-hartze soziala eta elkartasun antolatua sendotze aldera.

3. Eusko Jaurlaritzak animatu egin ditu herritarrak, Euskadiko auzo, herri eta hirietan barreiatutako Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeekiko atxikipena, babesa eta parte-hartzea areagotu dezaten.

En atención a todo ello:

1. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco y a las administraciones forales y locales a activar y consolidar los cauces de diálogo y necesaria colaboración y cooperación con el Tercer Sector Social en el marco del Diálogo Civil.

2. El Parlamento Vasco insta al Gobierno Vasco y a las administraciones forales y locales a que sigan impulsando la promoción y fortalecimiento del Tercer Sector Social de Euskadi de acuerdo a la Ley 6/2016 del Tercer Sector Social de Euskadi, a fin de contribuir a robustecer el tejido social, participación social y la solidaridad organizada en la sociedad vasca.

3. El Parlamento Vasco anima a la ciudadanía a aumentar su adhesión, apoyo y participación comprometida en las entidades del Tercer Sector Social repartidas por los barrios, pueblos y ciudades de Euskadi.

E.P.

EH Bildu

EA-NV

ES-SV

GPV/ETP